

GuHaun taldeka egiten diren saio bateko irudi bat.

GORKA RUBIO / FOKU



Leire Kerejeta eta haren bikotekidea, Jagger txakurra aurrean dutela. GORKA RUBIO / FOKU



Nire lana erreminta egokiak ematea da, txakurrarekin dagoen harremana orekatua izan dadin»

Nora Oteiza

GuHauko txakur hezitzailea

egiteko modua: «Azken finean, txakurrak nik nahi ditudan ekin-tza jakin batzuk egitea nahi dut, baina bere borondatez».

Komunikazioa da bere lanaren muina, eta, txakurrak eta gizakiak bi espezie desberdin izanik, elkar ulertzeko modu egokia bilatu behar dela kontatu du. «Pentsa, Txinara zoaz eta eta ez duzu hizkuntza ulertzen. Bertako biztanleek hitz egiten dizute, batzuetan tonu lasaian eta bestetan tonu gogorragoan, eta ez dituzu inola ere ulertzen. Horrek izugarritzko frustrazioa sortzen du. Berdin gertatzen da txakurrekin». Salvadorrentzat oso garrantzitsua da txakurrak jakitea jabeak zer esan nahi dion, eta jabeak ere transmititzen jakitea.

Zailtasunak

Taldekatu saioak egiten dituzenez, Oteizari batzuetan gertatu izan zaito elkartutako bi txakur ondo ez konpontzea, izan euren artean, edo bertan dagoen pertsonaren batekin. Kasu horietan, azaldu du pertsona edo txakur horrengandik jaso duen lehenengo inpresiotik datorrela harreman txar hori: «Lehenengo inpresio hori txarra bada, oso zaila da hori aldatzea».

Lehenengo inpresioa ahalik eta onena izatea da GuHauko hezitzailearen helburua. Kasuren bat izan du non hiru saio behar izan dituen soilik txakurrak berekin konfiantza izateko. «Txakurrak bere lekua eta denbora behar ditu horretarako, ulertu behar baitu nik ez diodala egingo berari gus-tatzen ez zaion ezer».

Txakurraren arrazaren arabe-



Ez da bakarrik portaera lantzea. Familiaren ezaugarrien arabera, txakur mota batzuk egokiagoak dira»

Laura Salvador

Gizotsoko txakur hezitzailea

«Jarrera oldarkorrek izaten dituzte zenbait estimuluren inguruan: bizikletak, autoak, haurrak edo beste txakur batzuk». Lanerako txakurraren genetika dutela aipatu du, eta, horregatik, oso sentikorrek direla ikusmenari eta usaimenari dagokionez, baita sensorialki ere. Hiriak, adibidez, ez dira euren gune biologikoa, eta horregatik dira hain sentiberak.



Taldekatu saioan parte hartu zuen txakurretako bat. GORKA RUBIO / FOKU

Azkenaldian border collie arrazako txakur dezenterekin lan egiten ari da Gizotsoko hezitzailea.



Poliki bada ere, aldaketa ikusten dut gure txakurrarengan, eta, egia esan, asko pozten naiz»

Leire Kerejeta

Txakur jabea

«Jarrera oldarkorrek izaten dituzte zenbait estimuluren inguruan: bizikletak, autoak, haurrak edo beste txakur batzuk». Lanerako txakurraren genetika dutela aipatu du, eta, horregatik, oso sentikorrek direla ikusmenari eta usaimenari dagokionez, baita sensorialki ere. Hiriak, adibidez, ez dira euren gune biologikoa, eta horregatik dira hain sentiberak.

Salvadorrek, gutxienez, hamar bat saio behar izaten ditu txakurrak bere arazoa gainditzen duela ikusten duen arte. Hamarretik behera «miraria» dela esan du. Oteizak ez du saio kopuru jakin

bat jartzten: «Jabeek neurtu behar dute ea nik esandakoa baliagarria zaien, eta ea aurrera egiten ari diren edo ez».

Etxeko lanak

GuHaun txakurren jabeek etxeko lanak jartzten dizkietela azaldu du hezitzaileak. Lehen aldiz txakurrarekin eta jabeekin elkartzean, txakurraren gabeziak aztertu ondoren, lanketa bidea aurkezten die. Lanketa bide hori, zentroan bertan egiten denaz ez ezik, norberak etxean egindakoz ere osatzen da, bestela ez baita aurrerapausorik ematen.

Lanketa ez denez soilik txakurrarekin egiten, jabeen jarrera eta ohiturretako batzuk ere aldatu behar izaten dira. Pare bat hilabetezko lanketak egiten ditu Gizotsoko hezitzaileak, baina ez da hori amaitzen: «Nik oinarri batzuk ematen dizkiot jabeari, eta gerora ere lanean jarraitu behar dute. Etengabeko lanketa bat da».

Baina txakur bat duen orok eraman behar al du hezitzaile batera? «Beti hobetu dezakegu txakurrekin dugun harremana», erantzun du, garbi, Oteizak. Pertsona bat ezagutzerekin alderatu du: norbaitekin harremana izan dezake pertsona batek, baina oso azalekoa. Berarekin denbora gehiago igarotzen hasten den heinean, pertsona horren gauza interesgarriak ikusten has daiteke. «Berdin gertatzen da hezitzailearengana etortzen diren txakur eta jabeekin».

Norbaitek txakur bat izatea erabakitzen duen unean bertan hasten da lanketa, Salvadorrentzat. «Ez da bakarrik portaera lantzea. Familiaren ezaugarrien arabera, txakur mota batzuk egokiagoak dira beste batzuk baino». Norberarentzat zein txakur den egokiagoa jakiteko, aholkularitza eskaintzen du.

Txakur bat heztea ez da edonolako lana, eta bai Oteizak eta baita Salvadorrek ere hainbat urtetako esperientzia dute. Urtean eta hezitako txakurren poderioz, gehiago ikasiz joan dira. Hala ere, formakuntza egokia jasotzea «oso garrantzitsua» da Gizotsoko hezitzailearentzat: «Ikastaro laburrak egiten dituen jende asko dago, eta horiek, lagundu baino gehiago, gauzak okertzen dituzte». Formakuntza: «Ikastaro bermatzeko, Nafarroako Gobernuak lege berri bat onartu berri du: heziketa zentro guztietako profesionalen tituluek akreditatuak egon beharko dute. «Horrela, konponbidea ez da gaitza baino okerragoa izango».

horren ostean, bere afizioa ofizio bilakatzeko erabakia hartu zuen. Gizotso enpresa sortu zuen, txakurrei, ahal zuen heinean, lagundu ahal izateko.

Oteizak ez bezala, etxek etxe egiten du lan Salvadorrek, Nafarroan. «Nire ustez, arazoa lekuan bertan landuz gero, eraginkorragoa da; jokabide arazoak dagokionez, bereziki». Egon daitezkeen arazo edo zailtasunak gertatzen diren lekuan konpontzen ez badira, leku horretara itzultzean berriro azalera daitezkeela uste du Gizotsoren sortzaileak.

Metodologia oso zehatza du Salvadorrek, eta «formakuntza handia eskatu du»; horregatik, bakarrik egiten du lan. Azaltzen konplexua dela aipatu duen arren, horrela definitu du bere lan